

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA 2019ko URTARRILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %2,9 gehitu dira eta ostatu-gauak %5,2 2019ko urtarrilean

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) jaitsi da %1,4 aurreko urtearen aldean Euskal AEko hoteletan, 66,2 eurora iritsita

2019ko urtarrilean bidaiari-sarrerak %2,9 gehitu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2018ko urtarrilaren aldean, Eustaten datuen arabera; guztira 161.662 sarrera izan dira, aurreko urteko urtarrilean baino 4.537 gehiago. Bidaiari-sarrerak %6,1 gehitu dira Gipuzkoan eta %1,9 Bizkaian, baina %2,2 jaitsi dira Araban.

Beste alde, gaualdiak 306.818 izan dira, aurreko urteko urtarrilekoen aldean %5,2ko gehikuntza; hau da, 15.175 gaualdi gehiago. Ostatu-gauak urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %7,9 hazi dira, Bizkaian %4,2, Araban %1,6.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Urtarrila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)				Gelatik Errentagarritasuna	
	2019/01	m/m-12 (%)	2019/01	m/m-12 (%)	2019/01	2018/01	plazaka	p.p.*	2019/01	p.p.*	ADR (eurotan)	RevPar (eurotan)
EUSKAL AE	306.818	5,2	161.662	2,9	1,90	1,86	37,1	1,1	47,5	1,3	66,2	31,5
Estatukoak	206.600	6,4	111.130	2,6	1,86	1,79	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	100.218	2,9	50.532	3,6	1,98	2,00	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	41.105	1,6	21.834	-2,2	1,88	1,81	34,8	1,2	45,7	1,5	57,3	26,2
Estatukoak	31.996	2,7	17.433	0,5	1,84	1,80	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.109	-1,9	4.401	-11,8	2,07	1,86	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	35.250	4,1	17.777	-1,6	1,98	1,87	38,1	1,3	50,9	1,6	54,6	27,8
BIZKAIA	150.346	4,2	77.603	1,9	1,94	1,90	37,8	1,5	49,1	1,4	67,6	33,2
Estatukoak	102.719	7,8	54.479	2,5	1,89	1,79	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	47.627	-2,8	23.124	0,6	2,06	2,13	-	-	-	-	-	-
Bilbao	100.373	7,0	54.224	8,6	1,85	1,88	41,4	2,3	52,8	2,1	73,0	38,5
GIPUZKOA	115.367	7,9	62.225	6,1	1,85	1,82	37,1	0,5	46,1	1,1	67,7	31,2
Estatukoak	71.885	6,1	39.218	3,6	1,83	1,79	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	43.482	11,2	23.007	10,7	1,89	1,88	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	71.263	9,7	39.074	9,2	1,82	1,81	40,9	0,1	48,6	-0,4	79,4	38,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatutiko bidaiariak %2,6 gehitu dira Euskal AEn aurreko urteko urtarrilaren aldean eta atzerritikoak %3,6. Araban erregistratu da Estatutik etorritako bidaiarien igoera bat %0,5ekoa eta atzerritik etorritakoen beherakada bat %11,8koa. Bizkaian Estatukoak %2,5 gehitu dira eta atzerritarrenak %0,6. Gipuzkoan Estatutik etorritakoen sarrerak %3,6 igo dira eta atzerritikoak %10,7.

Batez besteko egonaldia, urtarrilean, 1,90 egunekoa izan da, 2018ko urtarrilean 1,86koa zelarik. Araban lehengo urteko 1,81 egunetik aurtengo urtarrileko 1,88ra luzatu da; Bizkaian 1,90etik 1,94ra luzatu da; azkenez, Gipuzkoan 1,82tik 1,85era luzatu da.

Plazakako betetze-mailaz bezainbatean, ehuneko 1,1 puntuz handitu da Euskal AE osoan, aurtengo urtarrilean %37,1era iritsita. Araban ehuneko 1,2 puntuz gehitu da, 2018ko urtarrileko

%33,6tik aurtengo %34,8ra. Bizkaian ehuneko 1,5 puntuz gehitu da, %37,8ra. Gipuzkoan ehuneko 0,5 puntuz gehitu da, 2018ko urtarrileko %36,6tik 2019ko urtarrileko %37,1era.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Gelakako betetze-mailak ere eboluzio positiboa eduki du Euskal AE osorako, zeren ehuneko 1,3 puntuz gehitu baita, %47,5era. Araban ehuneko 1,5 puntuz gehitu da, %45,7ra; Bizkaian 1,4z, %49,1era; Gipuzkoan 1,1ez, %46,1era.

Plazakako hotel-okupaziorik handienak urtarrilean izan dira Bilbon (%41,4), Donostian (%40,9) eta Bizkaiko kostaldean (%39,0).

Aste-eguna aintzat hartuta, 2019ko urtarrilean, Euskal AE osoan, okupaziorik handiena (%44,7) aste-bukaeretan gertatu da; %34,5 lanegunetan.

Sektorearen errentagarritasun adierazleez, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 66,2 eurokoa izan da Euskal AEko hoteletan 2019ko urtarrilean, aurreko urtean baino %1,4 gutxiago. 57,3 eurokoa izan da Araban, %5,2ko jaitsierarekin; 67,6 eurokoa Bizkaian, %1,5eko igoerarekin; eta 67,7 eurokoa Gipuzkoan, %4,4ko jaistearekin.

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak okupazioaren arabera diren, 31,5 eurokoak izan dira Euskal AEn 2019ko urtarrilean, 2018koan baino %1,3 gehiago. Araban 26,7 eurokoak izan dira; Bizkaian 31,8 eurokoak; 31,9 eurokoak Gipuzkoan.

Landa-ostatueta bidaia-sarrerak %21,6 gutxitu dira, baina gaualdiak %3,2 gehitu, 2019ko urtarrilean

Euskal AEko landa-ostatueta 3.814 bidaiari-sarrera erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean %21,6 gutxiago. Lurraldeka, Araban sarrerak %4,1 gutxitu dira; Bizkaian %11,4; Gipuzkoan %30,4.

Izan dira 544 atzerritar-sarrera, zeina den %7,5eko jaitsiera aurreko urtekoen aldean, eta sarrera guztien %14,3 da hori. Beste alde, Estatuko bidaiarien sarrerak %23,5 gutxitu dira.

Euskal AEko landa-establezimenduetan urtarrilean 10.137 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil beraren aldean %3,2ko hazkundera. Lurraldeka, Araban %1,8 jaitsi dira eta Gipuzkoan %1,0, baina Bizkaian %17,4 igo dira.

Plazakako betetze-maila, %9,5, ehuneko 0,6 puntuz hazi da 2018ko urtarrileko zifren aldean. Araban ehuneko 0,1 puntuz egin du behera, %7,7ra. Bizkaian betetze-maila, %8,2, ehuneko 1,6 puntuz hazi da 2018ko urtarrilaren aldean, eta Gipuzkoan ehuneko 0,3 puntuz gehitu da, %11,2ko betetze-mailara iritsita aurtengo urtarrilean.

Azkenik, batez besteko egonaldia luzatu da urtarrilean, iraganez duela urtebeteko 2,02 egunetik aurtengo urtarrileko 2,66kora.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2019ko Urtarrila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2019/01	m/m-12 (%)	2019/01	m/m-12 (%)	2019/01	2018/01	2019/01	p.p.*
EUSKAL AE	10.137	3,2	3.814	-21,6	2,66	2,02	9,5	0,6
Araba/Álava	1.899	-1,8	828	-4,1	2,29	2,24	7,7	-0,1
Bizkaia	2.703	17,4	935	-11,4	2,89	2,18	8,2	1,6
Gipuzkoa	5.535	-1,0	2.051	-30,4	2,70	1,90	11,2	0,3

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62